



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2015/12/30

Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak behin betiko onetsi ditu 2016ko Bizkaiko Aurrekontuak

Bizkaiko Lurralde Historikoko 2016ko Aurrekontu Orokorrak gaur goizean onetsi dira, Gernikako Batzarretxean egin dan osoko bilkuran, Foru Aldundia eusten daben talde bien laguntzari esker: Euzko Abertzaleak (EAJ/PNV) eta Euskal Sozialistak (PSE-EE). EH Bildu, Podemos Bizkaia eta Bizkaiko Talde Popularra (PP), euren aldetik, 7.437,7 milioi euro hartzen dituen –aurtongo ekitaldikoak baino %2,6 gehiago– kontu publikoen kontra agertu dira. Kopuru horretatik 1.178 milioi Aldundiaren kudeaketa propiorako izango dira.

Bozketea, ia hiru ordu iraun dituan eztabaidaren ostean egin da. Eztabaidan, Bizkaiko Batzarretako bost taldeetako bakoetak bere jarrerak defendidu ditu, parte hartzeko txanda bitan. Aurrekontuei buruzko Foru Arauak Bizkaiko Batzarraren behin betiko onespena jaso dau, bederatzi bozketa egin eta gero, Sail bakoetako bat eta Testu Artikulaua berresteko beste bat. Guztiek be emaitza bera izan dabe: jeltzaleen eta sozialisten aldeko 30 boto eta oposizinoak hiru taldeen (EH Bildu, Podemos Bizkaia eta PP) kontrako 19 boto.

Foru Arau proiektuaren erespena batzarretako oposizinoak taldeek erreserbautako 318 zuzenketa-eske partzialakaz (PP taldearen 190, EH Bilduren 94 eta Podemos Bizkaia 34) heldu da urteko azkenengo osoko bilkurara, egun batzuk lehenago, abenduaren 18tik 22ra egindako Ekonomia eta Ogasuneko batzordeetan zuzenketa-eske horreek ezezkoa jaso eta gero. Azkenean, aurrekontuak 436.000 euroko aldaketea izango dau, saio hareetan EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek alkarregaz aurkeztutako hamabi zuzenketa-eske onetsi eta gero (10 partikular eta trantsakzional bi). Horetatik bost, lehen aldiz Bizkaiko Batzarretako webgunearen bitartez (jggbizkaia.eus) jasotako herritarren zuzenketa-eskeak dira, Bizkaiko Batzar Nagusietako araudi barriak herritarren partaidetzari jagokonez zabaldu dauen bideari jarraituz. Oposizinoak barriro ikusi dau gaur zelan bota diran atzera bere zuzenketa-eske guztiak.

EAJ/PNVk eta PSE-EEK euren arteko gobernu hitzarmena defendidu dabe eta, hori dala eta, baita Unai Rementeriaeren agerraldian onetsi diran lehenengo Kontuak be. “Landutako eta ondo aztertutako Aurrekontu erreal” horreek, ondoren adierazoten diran lehentasunak kontuan izanda diseinatu dira, Jon Andoni Atutxa batzordekide jeltzaleak adierazo dauenez: gizarte zerbitzuei eustea, ekonomia eta enplegua bizibarritzen laguntzea, Bizkaia nazinoartean indartzea eta lurralde “kohesioa” eta administrazio “modernoagoa, gertukoagoa eta gardenagoa” lortzea. “Proiektu eta esparru ideologiko desbardinak izan arren lurraldearen lehentasunen azterketa konpartitua daben indar politikoei onartu ditue”. Atutxak, bere taldea oposizinoak aurkeztutako zuzenketa-eskeen kontra agertu izana justifikatu dau, “horreek aurrera



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eroan izanez gero, foru administrazioaren funtsezko sektore asko gelditu egin beharko litzatekezalako”.

Carlos Totorika bozeroale sozialistak azaldu dauenez, “sozialistek egingo ebezan aurrekontuak” ez diran arren, “ekonomia berreskuratzeko bidean aurrera egiteko orduan erakundeen egonkortasunari lagunduko deusien” kontuak diralako eta horretarako, esan dauenez, beharrezkoa da “akordioak lortzea eta puntu batzuetan besteak esandakoa onartzea”. Aurrekontua “desbardinaren arteko akordioaren frutua” da, eta sozialistek, enplegua berpiztearen, barrikuntzaren alde apustu egitearen, iruzur fiskalaren kontrako eta harmonizazio fiskalaren aldeko burrukaren, gizarte babesaren edo zerbitzu publikoei eustearen arloetan dituen politika “baztertu ezinak” beteten ditu. Gobernu zentralak aurrera eroandako politikak dirala eta zerbitzu horreek jasan daben “erosinoaren” aurrean, Bizkaiko Aurrekontuak “ongizate estadian sortu diran murrizketei aurre egiteko euspeneko horrea” diralako.

EH Bildu, Podemos Bizkaia eta PP taldeei jagokenez Kontuen kontra agertu dira, eta baita Foru Gobernua eusten daben taldeak oposizio taldeek aurkeztutako zuzenketa-eske “guztiak” atzera bota izanaren kontra be.

Javier Ruiz, PP taldeak Batzar Nagusietan dauen bozeroaleak zabaldu dau eztabaidaren txandea, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek erakutsi daben jarrera eta “herritarrei bizkarra emoteko” erakutsi daben borondatea kritikauz, “70 milioi euro” hartzen dituen bere taldearen zuzenketa-eske guztien kontra agertu diralako. Aurrekontuen “bokazino zentralistea” kritikau dau, baliabide gehienak Eusko Jaurlaritzaren kutxa indartzera bideratzen diralako, eta, baita zergak jatsiz, krisialdi ekonomikoaren urteetan herritarrek egin daben esfortzua “herritar horreei itzuli” gura ez izana be. “Bizkaia, Gipuzkoagaz eta Arabagaz batera, 2012an baino zerga gehiago ordaintzen dituen Espainiako lurralde bakarra da”, esan dau.

Podemos Bizkaia taldetik, Asun Merinerok Aurrekontua “ez dagoala gehiengo sozialaren zerbitzura” kritikau dau. “Ez deutse erantzuten pertsona askoren lehentasun ekonomikoari, sozialei edo kulturei, hilaren bukaerara heltzen ez diran pertsonen lehentasunei, batez be”, eta ez deutso erantzuten “herritarren arteko desbardintasunaren eta erreskatearen kontrako burrukari”. Gainera, kritikau egin dau bere taldeak aurkeztu dituan zuzenketa-eske guztiek jasan daben ezezko “gogorra, baldarra batzuetan”. Bere esku-hartzeari bukaerea emoteko, “beste aurrekontu batzuk posibleak eta ezinbestekoak dirala” esan dau.

Eta Arantza Urkaregik (EH Bildu) esan dau, zoritxarrez, “hain Aurrekontu garrantzitsuak oso gitxi eztabaidau dirala” Batzar Nagusietan. Beste taldeetako kideek egin daben moduan, koalizio abertzaleak aurkeztu dituan zuzenketa-eske ia guztiak atzera bota izana kritikau dau “kontrako ezelango argumentu sendo barik”. “11.000 euroko zuzenketa-eske bat baino ez da onartu”, “50 milioi euro” hartzen ebezan zuzenketa-eskeetatik, adierazo dauenez. EH Bildu taldeko batzordekideak aldaketa pakete hori justifikau dau, bere eretziz “posible” dalako “beste lehentasun batzuk”



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

ezarriko dituen eta lehentasunak “behar gehien dituen pertsonengana bideratuko dituen” aurrekontuak izatea. “Ez da egon alkarrizketarik beste taldeakaz, Araban kontrakoa gertau dan arren”, alderatu dau.

Eztabaidea eta bozketak egin ostean, Bizkaiko Batzarrek, 2015. ekitaldiagaz alderatuta %2,4 handituko dan Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propiorako aurrekontua onetsi dabe. Aldundiko zortzi sailen artean hemen adierazoten dan moduan bananduko da:

- Gizarte Ekintza sailak 472,5 milioi euro izango ditu.
- Ekonomi eta Lurralde Garapen sailak, 245 milioi.
- Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio sailak, 155,7 milioi.
- Iraunkortasun eta Ingurune Natural sailak, 104,98 milioi.
- Ogasuna eta finantza sailak, 58,47 milioi euro.
- Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasun sailak, 51,41 milioi.
- Euskera eta Kultura sailak, 48,73 milioi.
- Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako sailak, 41,36 milioi euro.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
30/12/2015

El pleno de Juntas Generales aprueba definitivamente los Presupuestos de Bizkaia del 2016

Los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2016 han sido aprobados esta mañana, en un pleno celebrado en la Casa de Juntas de Gernika, gracias al apoyo de los dos grupos que sustentan a la Diputación: Nacionalistas Vascos (EAJ/PNV) y Socialistas Vascos (PSE-EE). EH Bildu, Podemos Bizkaia y Popular Vizcaíno (PP), por su parte, han rechazado unas cuentas públicas que alcanzan un importe total de 7.437,7 millones de euros –un 2,6% más que el presente ejercicio-, de los que 1.178 millones serán para gestión propia de la Diputación.

La votación se ha producido tras un debate de casi tres horas de duración en el que los cinco grupos de la Cámara vizcaína han defendido sus posturas en dos turnos de intervención. La Norma Foral de presupuestos ha recibido el plácet definitivo del Parlamento de Bizkaia después de producirse nueve votaciones, una por cada Departamento y otra para ratificar el Texto Articulado, todas ellas con idéntico resultado: 30 votos favorables de jeltzales y socialistas, frente a los 19 votos contrarios de los tres grupos de la oposición (EH Bildu, Podemos Bizkaia y PP).

El dictamen del proyecto de Norma Foral llegaba al último pleno del año con 318 enmiendas parciales reservadas por los grupos junteros de la oposición (190 del PP, 94 de EH Bildu y 34 de Podemos Bizkaia), tras ser rechazadas días antes en las ocho comisiones de Economía y Hacienda celebradas entre el 18 y el 22 diciembre. Finalmente, el presupuesto variará en 436.000 euros al acordarse en aquellas sesiones una docena de enmiendas conjuntas de EAJ/PNV y PSE-EE (10 particulares y 2 transaccionales), de las que cinco corresponden a alegaciones ciudadanas recogidas por primera vez a través de la web del parlamento vizcaíno (jjggbizkaia.eus), siguiendo la vía abierta por el nuevo reglamento de la Cámara en cuanto a participación ciudadana. La oposición ha visto como sus enmiendas eran nuevamente desestimadas hoy.

PNV y PSE-EE han defendido su pacto de gobierno y, en extensión, las primeras Cuentas aprobadas en la legislatura de Unai Rementeria. Estos Presupuestos, "trabajados, estudiados y reales", se han diseñado, según ha recordado el apoderado jeltzale Jon Andoni Atutxa, con las siguientes prioridades: el mantenimiento de los servicios sociales, el impulso a la activación económica y al empleo, la internacionalización de Bizkaia, y la consecución de un Territorio "más cohesionado" y una administración "más moderna, cercana y transparente". Han sido aprobados "por fuerzas políticas diferentes, con proyectos y marcos ideológicos diversos pero con un análisis compartido de las prioridades del territorio". Atutxa ha justificado el rechazo de su grupo a las enmiendas de la oposición ya que "de hacerse realidad, paralizaría gran parte de sectores clave de la administración foral".



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El portavoz socialista Carlos Totorika ha explicado que aunque “no son los presupuestos que harían los socialistas” son las cuentas que permitirán “contribuir a la estabilidad institucional para avanzar en la recuperación económica” y eso, según él, requiere “acuerdos y cesiones”. El Presupuesto es “fruto del acuerdo entre diferentes” que cumplen con las políticas “irrenunciables” de los socialistas en materia de incentivación del empleo, de la apuesta por la innovación, de la lucha contra el fraude y la armonización fiscal, de la protección social o del mantenimiento de los servicios públicos. Porque frente a la “erosión” de estos servicios provocado por las políticas del Gobierno central, los Presupuestos de Bizkaia se construyen como “un dique de contención frente a la merma del estado de bienestar”.

Por su parte, EH Bildu, Podemos Bizkaia y PP han compartido su rechazo a las Cuentas y a que los grupos que apoyan al Gobierno foral hayan desestimado “todas” las enmiendas presentadas por estas formaciones.

El portavoz del PP en las Juntas Generales, Javier Ruiz ha abierto el turno del debate con críticas al talante y a la “escasa” voluntad de PNV y PSE-EE por posicionarse “de espaldas a la ciudadanía” al rechazar las enmiendas de su grupo que suman “70 millones de euros”. Ha criticado la “vocación centralista” de los Presupuestos que dirigen la mayor parte de los recursos a engordar la caja del Gobierno Vasco y el hecho de que no se quiera “devolver a los ciudadanos”, con una bajada de impuestos, el esfuerzo realizado por ellos en los años de crisis económica. “Bizkaia, junto a Gipuzkoa y Alava, son los únicos territorios españoles que pagan más impuestos que en 2012”, ha dicho.

Desde Podemos Bizkaia, Asun Merinero ha criticado que el Presupuesto “no está al servicio de la mayoría social”. “No responde a prioridades económicas, sociales o culturales de muchas personas, especialmente de las que no llegan a fin de mes” y, tampoco, “a la lucha contra la desigualdad y al rescate ciudadano”. Ha criticado, además, el rechazo “abrupto, a veces grosero”, de todas las enmiendas presentadas por su grupo juntero. Ha concluido su intervención diciendo que “otros presupuestos son posibles e imprescindibles”.

Y Arantza Urkaregi (EH Bildu) ha lamentado el “poco debate” que ha habido en Juntas Generales para unos Presupuestos “tan importantes”. Al igual que sus antecesores ha criticado el rechazo de la práctica totalidad de las enmiendas presentadas por la coalición abertzale “sin ningún argumento de fondo en contra”. “Sólo una enmienda aceptada de 11.000 euros”, de unas enmiendas que suman “50 millones de euros”, según ella. La apoderada de Bildu ha justificado este paquete de modificaciones, porque cree que es “posible” unos presupuestos que establezcan “otras prioridades” y que dirijan éstas “a aquellas personas que tienen más necesidades”. “No ha habido diálogo con otros grupos, al contrario de lo ocurrido en Alava”, ha comparado.

Transcurrido el debate y las distintas votaciones, la Cámara vizcaína ha aprobado un presupuesto para gestión propia de la Diputación Foral de Bizkaia que crecerá un 2,4%



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

con respecto al ejercicio de 2015 y que quedará repartido, entre sus ocho departamentos, de la siguiente manera:

- Acción Social, contará con 472,5 millones de euros.
- Desarrollo Económico y Territorial, 245 millones.
- Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, 155,7 millones.
- Sostenibilidad y Medio Natural, 104,98 millones.
- Hacienda y Finanzas, 58,47 euros.
- Empleo, Inserción Social e Igualdad, 51,41 millones.
- Euskera y Cultura, 48,73 millones.
- Administración Pública y Relaciones Institucionales, 41,36 millones.